ELHEKETA : Aste huntako solas-bidea.
1. Nafarroa zer da ?
2. Noiz galdu zuen bere bergoa ?
3. Zer da mezu izun bat ?

(II)

ZER GINEN ETA ZER GIREN *

Nik erraiterat noana denez arras ezagutua da, bainan Nafarroako gauzak, aitzineko denboretako gora-beherak, bethi erdaraz erranak izan dira: eta uste dut eskuaraz ere behar direla yakinarazi, nahiz laburzki. Hau da nere xedea.

Nafarroako erresumaz mintzatzen direlarik anitzek uste ohi dute gu Espaina-ri elgartu ginela gure nahikundez. Union hitz hori hola ulertzen dute gehienek. Eta hori ez da bathere egia.

Espainiarrak hamasei garren lehenbiziko urthetan, xuxenki 1512-an, galdegin zuten Nafartarreri Frantziarekin gudukatu behar zutelako estakuruan utz ditzan Nafarroan gaindi iragaiterat bere gudulariak.

Espainarrek bazuten bere lurretarik Frantzian sartzeko bertze bide bat, bainan hemendik nahi zuten, yakina.

Nafartarrek ihardetsi zuten ezetz, debekatzen zituztela hemen sartzea.

Zer egin zuen ordian *Fernando el católico* heien erregeak?

Aita Sainduaren mezu izun batekin mehatxatuz yakinarazi zuen Nafartarreri Elizatik ohilduak[1] edo iraziak izain zirela, zeren eta gure erregeak adixkide adostuak baitziren Frantziako erregeekin, eta hok Aita Sainduaren etsaiak izanez geroz, herrunka edo lerro berean ezartzen zuztela. Eta beraz, harek guduz ardietsiko zuela Nafarroako erresuma. Yinkoaren izenian.

Espainiarren erregeak baitzakien zoin minberak ziren Nafartarrak bere girixtasunean uste izan zuen zimardika[2] horrekin bidia legun leguna izain zuela hemen sartzeko eta gutaz yabetzeko.

Nafartarrek etzuten osoki sinetsi Aita Sainduaren aleko mezu hartan eta egin ahalak egin zituzten etsaiari ihardokitzeko eta garaitzeko gure lurretan sartu zelarik. Bainan gure indarrak heienak baino ahulagoak izanik izigarriko gudu latz eta borthitz baten ondotik, eta desmasia eta hiltze haundienak eginik azkenian yabetu ziren bethikotz gure erresuma dohakabeaz.

Horra nola eratxiki ginuzten bere uztarrari Espainiarrek. Borrokaldi gaitz eta latz bat pairatu ondoan.

izain = izanen } izan etc
zuztela = zituztela } c'est le plus
yakina = jakina } souvent ce que l'on entend lorsque les gens parlent

ginuzten = gineuzten.
hok = hauk
Garazi Lapurdi

(III) ADITZ IKHASKUNTZA.

31. erraiterat noana 32 utz ditzan
33. baitzakien 34 ezartzen zuztela.

31. JOAN. Aller. Indicatif.

Présent		Imparfait
Ni noa	(je vais)	nindoan
Hi hoa	(tu vas)	hindoan
Zu zoatze		zinoatzin
Hura doa		zoan
Gu goatze		ginoatzin
Zuek zoazte		zinoazten
Heek doatze	etc.	zoatzin

32. UKAN. Subjonctif Présent

Objet singulier		Objet pluriel
Nik Ukan dezatan	(que je l'aie)	Ukan ditzatan (")
Hik " dezakan/nan		" ditzakan/nan
Zuk " dezazun		" ditzazun
Harek " dezan		" ditzan
Guk " dezagun		" ditzagun
Zuek " dezazuen		" ditzazuen
Heiek " dezaten	etc	" ditzaten etc

" que je les aie → etc

JAKIN. Indicatif imparfait

Objet sing.		Objet pluriel
Nik nakien	(je le savais)	nazkien : je les savais
Hik hakien		hazkien :
Zuk zinakien		zinazkien :
Harek zakien		zazkien :
Guk ginakien		ginazkien :
Zuek zinakiten		zinazkiten :
Heiek zakiten	etc	zazkiten : etc